

BEASAINDIK



Beasaingo Udalak

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016

Herriarren ondoan, hitza betez

La legislatura ha alcanzado su ecuador, y la alcaldesa Leire Artola y su equipo realizan un balance positivo, reafirmando su compromiso con Beasain y con las y los beasaindarras



Artearen eta bizikidetzaren topagune berria Beasainen: Senpere kaleko horma itsuak, itxura berria hartuko du laster

06



Uda ikastaroak Beasainen: euskal dantza, hiri-logistika eta begirale ikastaroa

06

★
Zuen
alkatea



Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Hartutako konpromisoari eutsiz

Denbora azkar doa, eta konturatu orduko legealdi honen erdira iritsi gara. Une egokia da atzera begiratu, gaur-gaurkoari erreparatu eta etorkizun hurbilari so egiteko. Hala egin nahi dut, zuengandik hurbil eta zuentzako lanean ari den udal gobernuaren izenean.

Duela bi urte hartu genuen ardura helburu argi batekin: Beasain hobetzen jarraitzea, guztion ongizatea ardatz hartuta. Ordutik hona, hitza betetzen eta konpromisoari eusten aritu gara. Gure eguneroko jardunean gobernu ona, kudeaketa zuhurra eta gardentasuna izan

ditugu lanerako oinarri. Eta horrela jarraituko dugu.

Orain arteko bidea ez da erraza izan, baina harro esan dezakegu proiektu ugari gauzatu eta beste hainbat abian jarri ditugula. Herriko auzo eta espazio publikoetan hobekuntzak egin ditugu, mugikortasun jasangarria bultzatzeko urrats sendoak eman, kultura eta

kirola sendotzen jarraitu dugu, eta, batez ere, pertsonak jarri ditugu erdigunean: adinekoentzat, familientzat, gazteentzat zein haur txikiengandik hasita, iñor atzean utzi gabe.

Egun, martxan dauden hainbat egitasmo dira gure lanaren adierazgarri: San Inazio-Esteban Lasa ardatzaren eraldaketa, Mugikortasun Planaren inplementazioa, etxebizitza arloko neurri berriak, edo ingurumenaren zaintza bultzatzeko estrategiak, besteak beste. Guztiak, herri atseginoago, inklusiboago eta jasangarriago baten aldeko bidean.

**BEASAIN DARREK
MEREZI
DUTELAKO**

PERTSONEN ONGIZATE INTEGRALA HELBURU

Bidean elkarrekin jarraituko dugu

Eta etorkizunari begira, lanean jarraituko dugu zintzotasunez eta zentzuz jokatzuz. Besteak beste, hiri-espazio berriak garatuko ditugu, herritarren parte-hartzea indartuko dugu, eta zerbitzu publikoen kalitatea bermatzen jarraituko dugu. Herritarrei entzunez, gardentasunez eta erantzukizunez jardunaz, eredu garritasunaren bidea izango da gurea.

Guzti hau ez litzateke posible izango zuen konfiantzarik gabe. Eskerrik asko, bihotzez. Gure hitza bete eta egunerokoan konpromisoa erakusten jarraituko dugu. Beasainek merezi duelako.

Junto a la ciudadanía, cumpliendo palabra y compromiso

La legislatura ha llegado a su ecuador, y es buen momento para hacer balance. Desde el gobierno municipal, cercano y activo, reafirmamos nuestro compromiso con Beasain y las y los beasaindarras.

Hace dos años asumimos la responsabilidad de seguir mejorando el municipio, siempre con el bienestar común como prioridad. Lo hemos hecho a través de la buena gestión, con responsabilidad y transparencia, y así continuaremos.

Aunque el camino no ha sido fácil, hemos impulsado numerosos proyectos: mejoras en barrios y espacios públicos, fomento de la movilidad sostenible, apoyo a la cultura y el deporte, y una atención especial a mayores, familias, jóvenes y niños/as, sin dejar a nadie de lado.

Hoy seguimos avanzando con iniciativas clave como la transformación del eje San Inazio-Esteban Lasa, el Plan de Movilidad, nuevas políticas de vivienda y estrategias medioambientales, todo para continuar diseñando un Beasain más inclusivo, sostenible y humano.

Mirando al futuro, seguiremos trabajando con honestidad y sentido común: desarrollando nuevos espacios, fortaleciendo la participación ciudadana y garantizando servicios públicos de calidad. Nuestro camino será el de la ejemplaridad, siempre de la mano de la ciudadanía.

Gracias por vuestra confianza. Seguiremos cumpliendo con hechos, porque Beasain lo merece.



Entzun eta erantzun, gertutasuna eta entzute aktiboa erabiliz

Escuchar y responder, utilizando la cercanía y la escucha activa



Ingurumenaren zaintzan kontzientziarazioa eta parte-hartzea

Concienciación y participación por el cuidado del medioambiente



Bizi ohitura osasuntsuak sustatuz elikadura jasangarriaren bidez

Promover hábitos saludables mediante la alimentación sostenible



Euskara eta kultura sendotuz eta zabalduz etenik gabe

Fortalecer y difundir la cultura y el euskera sin descanso

Pausoz pauso helburuak betez

Aurreikuspenak betez doaz. Balorazio positiboa egiten du udal gobernua orain arte egindakoaz, proiektuen ia bi heren gauzatu direlako eta datozen bi urteei begira hitz emandakoak bideratuta daudelako. Herritarren beharrei egokitu-

tako udalerrri hobea eraikitzen jarraitzeko konpromisoa mantentzen du. Gobernu taldearen helburua da udalerrri gizatiarragoa eta ingurumenarekiko errespetuzkoa goa eraikitzea.

Cumpliendo objetivos

Al llegar al ecuador de la legislatura, el gobierno municipal hace una valoración positiva del trabajo realizado: se han cumplido los objetivos marcados y casi dos tercios de los proyectos están ejecutados. Con la mirada puesta en los próximos dos años, mantiene su compromiso de seguir construyendo un municipio mejor, adaptado a las necesidades de la ciudadanía.



+ INFO

2023-2027 Legealdi Plana / Plan de legislatura

Gauzatuak • Concluidos

Ingurumenaren zaintza • Cuidado del medio ambiente



Argiteri publikoa LED argiztapenera egokitzea: orain arte %66 burutu da. Sustitución del alumbrado público a LED: ejecutado el 66%.



Ezkiaga auzoan uholdegarritasun arriskua gutxitzea (Porteriaren berurbanizazio). Reducir el riesgo de inundabilidad en el barrio de Ezkiaga (Reurbanización de la Portería).

Tokiko ekonomiaren sustapena • Promoción de la economía local



Enplegarritasuna sustatzeko, formakuntza proiektuak Goiekirekin. Proyectos formativos para fomentar la empleabilidad con Goieki



Tori! Azken miliako banaketa sistema jasangarria. Tori! Sistema de distribución sostenible de última milla.

Pertsonen ongizatea • Bienestar de las personas



Beasaingo Etxebizitza diagnostikoa eta plana. Diagnóstico y Plan de Vivienda de Beasain




Elkarteen eguna
Día de las asociaciones



Antzizargo biribilgune berria.
Nueva rotonda de Antzizar.

Eta hemendik aurrera... • En adelante...

Aurreikusitako amaiera • Finalización prevista



Cursos de Verano en Beasain: euskal dantza y logística urbana

El Ayuntamiento de Beasain y la Fundación Cursos de Verano de la UPV/EHU han organizado dos jornadas que abordan temáticas clave dentro de la estrategia municipal: la identidad cultural vasca y la sostenibilidad urbana. El 30 de junio y 1 de julio se celebrará el curso “Ateak ireki dantzan”, centrado en el papel de las danzas vascas como vínculo con la juventud de la diáspora. El 11 de septiembre, el curso “Reparto de última milla, un reto de primer nivel” analizará soluciones innovadoras para una logística urbana más eficiente y sostenible.

Ambos cursos refuerzan el compromiso del consistorio con el desarrollo cultural y ambiental del municipio, convirtiendo a Beasain en un referente en conocimiento, tradición e innovación. Inscripciones e información www.uik.eus



Uda Ikastaroak Beasainen: euskal dantza eta hiri-logistika

Beasaingo Udalak eta EHuko Uda Ikastaroak Fundazioak antolatutako 2025eko Uda Ikastaroek udal gobernuaren helburu estrategikoekin bat egiten duten bi gai jorratuko dituzte: euskal nortasuna eta jasangarritasuna. Ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean, euskal dantzak eta diasporako gazteen arteko loturak izango dira ardatz “Ateak ireki dantzan” ikastaroan. Irailaren 11n, berriz, hiri-logistikaren erronka nagusietako bat izango dute hizpide “Azken miliako banaketa, lehen mailako erronka” izeneko jardunaldian.

Bi gai hauek Beasaingo Udalaren proiektu estrategikoen baitan kokatzen dira: euskal kulturaren sustapena eta klima aldaketaren aurkako borroka. Ikastaroek ezagutza partekatzeko eta etorkizun jasangarriago baterako ideiak lantzeko aukera eskainiko dute Igartzako jauregian, Beasain ezagutzaren eta elkarlanaren erdigune bihurtuz. informazioa eta izen emateak www.uik.eus webgunean.

Begirale ikastarorako izen ematea zabalik Euskara, aisía eta lana uztartzeko aukera Beasainen

Beasaingo Udalak, Hezten elkartarekin lankidetzan, seigarren urtez antolatu du “Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale” titulua lortzeko ikastaroa. Eusko Jaurlaritzak homologatutako formakuntza honek gazteei lanerako ateak irekitzeaz gain, euskararen erabilera sustatzea du helburu. Ikastaroa 2025eko urriaren 4an hasiko da eta 2026ko maiatzaren 9an amaituko da, 150 ordu teoriko, 160 ordu praktikoa eta memoria baten lanketaz osatua. Parte-hartzaileek asteburu bateko irteera egingo dute, eta beasaindarrek matrikularen erdia soilik ordainduko dute. Informazio gehiago eta izen-ematea:

+ INFO



Abierto el plazo de inscripción para el curso de monitor/a de tiempo libre

Una oportunidad que une euskera, ocio y empleo

El Ayuntamiento de Beasain, en colaboración con la asociación Hezten, organiza por sexto año consecutivo el curso para obtener el título oficial de “Monitor/a de Tiempo Libre Infantil y Juvenil”, homologado por el Gobierno Vasco. Esta formación no solo abre puertas al mundo laboral, sino que también fomenta el uso del euskera entre la juventud.

El curso comenzará el 4 de octubre de 2025 y finalizará el 9 de mayo de 2026. Constará de 150 horas teóricas, 160 prácticas y la elaboración de una memoria. Además, se incluye una salida de fin de semana. Las personas empadronadas en Beasain pagarán solo la mitad de la matrícula. Más información e inscripciones.



Bizia hartuko duen espazio berria

Artearen eta bizikidetzaren topagune berria Beasainen

Senpere kaleko hormaitsuak, itxura berria hartuko du laster. Beasaingo Udalaren ekimenez, Xabier Anuntzibai artista eta margolari beasaindarrak mural bat sortuko du bertan, egunerokoan espazio horretatik igarotzen diren milaka pertsonen bizipen eta mugimenduak irudikatzeko.

Muralaren gai nagusiak bizikidetzaren eta belaunaldien arteko harremanak izango dira, eta bertan, Beasaingo eguneroko eszenak agertuko dira: bizikletan, patinetean, trenez edo oinez mugitzen diren herritarrak, Oria ibaiko koartza Igartzako monumentuen gainetik hegan, eta herriaren nerbio sistema den trafikoa tunel eta errepideetatik dabilatzala.

Obra berri honek artea eta mugikortasun jasangarria uztartuko ditu, espazio komun batean herritarren eta bisitarien arreta pizteko asmoz. Non kokatzen duzu zeure burua mural honetan? Laster, horma hori ez da gehiago hutsik egongo.



Xabierren lanetan natura, nortasuna eta ikuspegi poetiko bat uztartzen dira, artea esperientzia bihurtuz

Un nuevo espacio que cobrará vida. Nuevo mural sobre convivencia y movilidad en Beasain

El hasta ahora muro vacío de la calle Senpere se transformará próximamente en una obra de arte llena de significado. A iniciativa del Ayuntamiento de Beasain, el artista y pintor local Xabier Anuntzibai será el encargado de crear un mural que represente el ir y venir diario de miles de personas que atraviesan este punto neurálgico del municipio.

La obra abordará como temas principales la convivencia y las relaciones intergeneracionales, reflejando escenas cotidianas de Beasain: personas desplazándose en bicicleta, patinete o a pie, la garza del Oria sobrevolando el conjunto monumental de Igartza, trenes entrando y saliendo de túneles, coches y autobuses circulando... todo un retrato del sistema nervioso del municipio en constante movimiento.

Este mural unirá arte y sostenibilidad, invitando a la reflexión sobre la movilidad y el entorno compartido. Pronto, ese muro dejará de estar vacío. ¿Dónde te ves tú dentro de esta imagen colectiva?

Une ahaztezinak iruditan

Loinatz jaietan bizitako momentu bereziak gurekin jarraitzen dute. Jaietako giroa, kolorea eta emozioak islatu dituzten argazkiak bildu dira galeria berezi batean. Ikusi eta bizi berriz aparteko une horiek!

Momentos inolvidables en imágenes

Las Loinatz jaiak nos dejaron momentos especiales que siguen muy presentes. Hemos reunido en una galería especial las imágenes que capturan el ambiente, el color y la emoción de estos días festivos. ¡Revive la magia de las celebraciones a través de las imágenes!



LOINATZ JAIK 2025



ARGAZKI BILDUMA
GALERÍA DE FOTOS

ORIA ELKARREKIN ZAINDU DEZAGUN

Beasaingo Udalak herritarrek gonbidatzen ditu ingurumena-
ren aldeko ekintza honetara: Oriaren garbiketa eta landare
inbaditzaileak kentzea. Ekimen hau Aranzadi Zientzia Elkartea-
ren laguntzarekin gauzatuko da, aurreko urteetan bezala, eta
herritarrek parte hartzea funtsezkoa da. Igartzako Monumentu
Multzoan elkartuko gara. Materiala Udalaren kontu. Oinetako
egokiak eraman.

IBAIAREN GARBIKETA:
Uztailaren 16an, 18:00etan.
LIMPIEZA DEL RÍO:
16 de julio a las 18:00 h.



CUIDEMOS JUNTOS EL ORIA

El Ayuntamiento de Beasain invita a la ciudadanía a esta acción
en favor del medio ambiente: la limpieza del Oria y la elimina-
ción de plantas invasoras. Esta iniciativa se llevará a cabo con
la colaboración de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, como en
años anteriores, y la participación ciudadana es fundamental.
Nos juntaremos en el Conjunto Monumental de Igartza. Material
a cargo del Ayuntamiento. Llevar calzado adecuado.



LANDARE INBADITZAILEAK ERAUZTEA:
Uztailaren 23an, 18:00etan,
EXTRACCIÓN DE PLANTAS INVASORAS:
23 de julio a las 18:00 h.

AURREZ IZENA EMAN BEHARKO DA

SERÁ NECESARIO INSCRIBIRSE PREVIAMENTE